VILLAR, L.

1980. Catálogo florístico del Pirineo occidental español. *Publ. Centro Pir. Bol. Exp. Jaca.*

VIVANT, J.

1985. Herborisations dans le bassin moyen et inferieur de l'Adour. *Le Monde des Plantes,* 421-422 : 9-13. Toulouse.

WILKINSON, M.J. & STACE, C.A.

1985. The status of Festuca ophioliticola Kerguélen and related taxa. *Soc. Ech. Pl. Vasc. Eur. Occ. et Bass. Médit.,* 20: 69-73. Liege.

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **MUNIBE** (Ciencias Naturales) | 38 | 163-168 | SAN SEBASTIAN | 1986 | ISSN 0027 .3414 |

Recibido: 14 - 1 - 86

# Riccia-generoa Euskal Herrian (1)

**I. AIZPURU***

*** Sociedad de Ciencias Aranzadi Zientzi Elkartea. Plaza I. Zuloaga (Museo). 20003-Donostia.**

Este artículo refleja el estado actual de los conocimientos que sobre la existencia y distribución de las especies del género *Riccia* se poseen en el País Vasco, dando cuenta de la presencia de *Riccia beyrichiana* Hampe ex Lehm. y *Riccia huebeneriana* Lindenb. por primera y segunda vez respectivamente.

(1) Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza. Unibertsitate eta Ikerketa Sailaren laguntzari esker egiten ari den lana.

Euskal Herriko briofitoen ezaguera urria dugu oraindik, bainan gure landaretza mota honen bilduma bat egitearen lehen urrats izateko asmoz, emango dugu orain talodun hepatikoen artean espezietan ugariena den Riccia generoaren berri.

Europan zehar, hogeitahamabost espezie baditu genero honek (R. DUELL, 1983), Euskal Herrian, bibliografi eta herbarioak azterkatu eta egindako bilketaren ondorioz, zazpi besterik ez dira arkitu, eta hauek leku bakan batzutan gainera (1. Irudia).

Hau da beraz Euskal Herriko *Riccia-ren* bilduma:

*Riccia beyrichiana* Hampe ex Lehm.

NAFARROA: Lezaun, Urbasa, 960 m. WN63.

Berria Euskal Herrirako, txilardegi bateko lur hondartsuan arkitua.

*Riccia ciliifera* Link ex Lindenb.

NAFARROA BEHEREA; Bidarrai, Errobi, 100 m., XN39.

P. ALLORGE (1941), ibai bazterreko arroka hondartsuetan, P. herbarioan ikusteko aukera iztin dugu.

*Riccia glauca* L.

ARABA; Barambio, 300 m. WN06. GIPUZKOA: Itsasondo, 160 m. WN66. LAPURDI: Angelu, Brindos, 25 m., XP11. NAFARROA BEHEREA: Banka, 250 m., XN37.

G. DISMIER-ek arkitu zuen lehenengo Bankan (P Herb.), ANCIBOURE & PRESTAT (1918) berriz Angelun. Geroago, V. ALLORGE (1955) Itsasondo eta berriro Angelun, eta azkenik P. HERAS (1985) Araban.

*Riccia huebeneriana* Lindenb.

LAPURDI: Urruña, Txoldokogaina, 250m. XN09. NAFARROA: Ituren, Mendaur, 720 m., XN07.

Lehendabizi S. JOVET (1956) Txoldokogainako urtegian arkitu zuen (P. herb.); orain berriz Mendaurko urtegian azaldu da, ura jaitsitakoan gelditzen den lohiaren gainean.

*Riccia lamellosa* Raddi

ARABA: Oion, 400 m., WN40.

P. HERAS (1985) da espezie honen aipamen bakarra eman duena.

*Riccia michelii* Raddi

LAPURDI: Biriatu, Lizarlan, 80 m., XN09. NAFARROA: Donamaria, Errekagorri, 160 m., XN07.

P. ALLORGE (1941) da lehendabizi aipatzen duena Donamarian; gero, V. ALLORGE (1955) argitaratzen du S. Jovet-ek Biriatun bildutakoa. Biak P herbarioan.

*Riccia sorocarpa* Bisch.

BIZKAIA: Zeanuri, Gorbea, 1.400 m. WN16. GIPUZKOA: Oñati, Aloña, 1.300 m., WN46. LAPURDI: Angelu, 10 m., XP21.

V. ALLORGE (1955) Gipuzkorako eta S. JOVET (1956) Lapurdirako arkitu zuten lehendabizi (P herb.) eta azkenik, P. HERAS (1985) Bizkairako.




1. Irudia. Euskal Herriko mapa, 30 T ardatzean, 10 Km. aldeko UTM karratuetan kokaera zehaztuz: (✱) *Riccia beyrichiana*, (▲) *Riccia ciliifera*, (✸) *Riccia glauca*, (■) *Riccia huebeneriana* eta *Riccia michelii* , (●) *Riccia lamellosa* eta (◢) *Riccia sorocarpa*.

**ESKERRONA:**

Hainbeste lagundu didan Pariseko Kriptogarnia laborategiko zuzendari den S. Jovet Andereari.

**BIBLIOGRAFIA**

ALLORGE, P.

1941. Muscinées du Pays Basque. *Bull. Soc. Bot. France,* 88: 210-219. París.

ALORGE, V.

1955. Catalogue préliminaire des Muscinées du Pays Basque Francais et Espagnol. *Rev. Bryol. Lichénol.* 24: 96-131. Paris.

ANCIBOURE & PRESTAT

1918. Catalogue des plantes de la régidn bayonnaise. Soc. Bayonnaise d'Etudes Regionaux. 85 p. Baiona.

DUELL, R.

1983. Distributión of the European and Macaronesian Liveworts (Hepaticophytina). *Byrolog. Beitraeg.,* 2: 1-114. Duisburg.

HERAS, P.

1985. Primera aproximación al catálogo briológico de Alava. *Cuad. de Secc. Cienc. Nats. Eusko Ikaskuntza,* 2: 113-192. Donostia.

JOVET, S.

1956. *Deux Riccia* (hépatiques) nouveaux pour le Pays Basque Français. B.C.E.R.S. 1 (1): 139. Miarritze.

| | | | | | |
|---|---|---|---|---|---|
| **MUNIBE** (Ciencias Naturales) | 38 | 168-169 | SAN SEBASTIAN | 1986 | ISSN 0027 - 3414 |

Recibido: 8 - 4 - 86

# *Eoxetomon* (Insecta, Protura) generoaren bi espezieren PenintsulaIberikarako Lehenengo Aipamenak

**J. ALDABA***

*** Departamento de Entomología. Sociedad de Ciencias Aranzadi. 20003-San Sebastián.**

CONDE-k (1947) Iparraldean (Senpere) Eosentomon carolae Condé eta E. denisi Condé espezieak deskribatu zituen. Gaur arte beren banakera Iparraldeko zenbait lekutan soilik (Senpere, Sara, Kanbo) kokatu izan da. Geroztik TUXEN-ek (1964) E. wheeleri espeziearen sinonimiatzat bi hauek hartu zituen eta azkenik NOSEK-ek (1973) espezie-kategoria itzuli zien.

TUXEN-en (1964) sailkapenaren arabera bi espezie hauek «wheeleri»taldekoak dira. Talde sistematiko honen berezitasunak, besteak beste, hauexek dira: Neurri handiko prozesu esternala; Prozesu-buru leuna eta triangeluarra. Taldeko espezieen artean, IX-X tergitoen ketotaxia, BS indizearen balioa eta IX tergitoaren A1/A3 ceden erlazioa, berezitasun nagusiak dira bi espezie hauek desberdintzeko.

Guk hartutako laginek honoko konposaketa eta kokapena aurkezten dituzte: